

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5507

116/2019 EBAZPENA, azaroaren 20koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita argitara eman dadila Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin 2019an estatistikaren arloan sinatutako lankidetz hitzarmena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatu du hitzarmen hori, eta hitzarmenari dagokion publikotasuna emateko asmoz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin 2019an estatistikaren arloan sinatutako lankidetz hitzarmena. Eranskin modura jasota dago.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 20a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JUAN ANTONIO ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 20KO 116/2019 EBAZPENARENA

HITZARMENA, ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN –NEKAZARITZA,
ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOAREN BIDEZ– ETA EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN –EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA
SAILAREN BIDEZ– ARTEKOA, 2019KO ESTATISTIKAREN ARLOKOA

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 13a.

BILDU DIRA:

Batetik, María Dolores Ocaña Madrid andrea, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako azpi-dazkaria, berau izendatzeko ekainaren 18ko 544/2018 Errege Dekretuari jarraikiz eta aipatu departamenduaren izenean eta hura ordezkatzuz, zenbait gastu administratzeko mugak ezartzeko eta departamendu horren eskumenen eskuordetzeari buruzko urtarrilaren 10eko APA/21/2019 Aginduan eskuordetutako ahalmenekin bat.

Eta, bestetik, María Aranzazu Tapia Otaegui andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua, Lehendakariaren azaroaren 26ko 27/2016 Dekretuari jarraikiz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua izendatzekoa, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 3. artikulua emandako ahalmenez baliatuta.

Bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzeko behar besteko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta, ados jarrita, honako hau

AZALTZEN DUTE:

Lehenengoa.– Espainiako Konstituzioaren 149.1.31.^a artikuluan ezarritakoarekin bat dihardu Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak; artikulua horrek estatuarentzat bakarrik gordetzen du estatuaren helburuetarako estatistikaren arloko eskumena.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik du autonomia-erkidegoaren helburuetarako estatistiken gaineko eskumena, Autonomia Estatuaren 10.37 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Bigarrena.– Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legeren xedea da estatuaren helburuetarako estatistiken funtzioa arautzea. Bada, haren 41. artikuluan ezartzen duenez, estatistika-eragiketen garapenari buruzko hitzarmenak egin ahal izango dituzte Estatuaren Administrazioa eta autonomia-erkidegoetako estatistika-zerbitzuek, horiek hobetu eta eraginkorrago egiteko bikoiztasunak eta gastuak saihesteko. Hitzarmen horiek zehaztu beharko dituzte, koordinazioak hala eskatzen duenean, informazioa bildu, tratatu eta zabaltzeari buruzko prozedura teknikoak eta eragiketa horiek burutzeko epeak. Hitzarmenen esparruan, estatuko zerbitzuek estatuaren edo autonomien helburuetarako estatistiken finantzazioan parte hartzeko formulak ezarri ahal izango dira.

Hirugarrena.– Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak eta Euskal Autonomia Erkidegoak lankidetzan-harreman estua izan dute, eta estatistikaren arloko alde biko hitzarmenak izenpetu dituzte, euren lurralde-eremuan informazioa bildu, grabatu eta datuak baliozkozteko behar diren egitekoak urtero burutu daitezzen, dagokion estatistika-programa egikaritzeko xedez.

Laugarrena.— Alderdi horien iritziz, egokia da bai haien eskumenez baliatuta hitzarmen bat izenpetzea prestatutako estatistiken armonizaziorako eta alderagarritasunerako, baita informazioa biltzeko iturri bakarra ezartzeko ere, bikoiztasunak, dibergentziak eta informazio-emaleari eragozpenak saihestu eta Estatistika programa egikaritzeak dakarren kostua minimizatze aldera, eta bai estaldura-, fidagarritasun- eta aukera-maila nahikoa bermatzea, Espainiako eta Europar Batasuneko araudiaren eskakizunekin bat.

Bosgarrena.— Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak aurreikusten du bi administrazio publikoren edo gehiagoren artean hitzarmenak izenpetzea, eta horietan barne hartu ahal izango da bitartekoak, zerbitzuak eta baliabideak erabiltzea norbere eskumenez edo delegatutakoez baliatzeko. Ondorioz, hitzarmen hau izenpetzeko gaituta daude alderdiak.

Azaldutako guztiagatik, alderdiek erabaki dute hitzarmen hau sinatzea, honako klausula hauek aintzat harturik.

KLAUSULAK

Lehenengoa.— Xedea.

Hitzarmen honen xedea da alderdi sinatzaileen elkarrekintza ezartzea nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako estatistikaren arloan, hain zuzen ere, 2019an, nekazal-ustiategietan, establezimenduetan, industria-enpresetan eta nekazal-produktuen azoketan informazioa biltzeko egiteko zehatzak burutzeko, baita horiek grabatu eta baliozkotzea ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, hitzarmen honen 4. klausulan aipatutako estatistika programak egikaritzeko xedez.

Bigarrena.— Jarduketak.

1.— Jarduketa hauek egiteko konpromisoa hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia-aren Garapeneko eta Azpiegitura Sailak:

a) Estatistika-programa egikaritzeko behar diren estatistika-eragiketak egitea, autonomia-erkidegoaren helburuetarako estatistikei buruzko eskumen eskusiboaz baliatuta.

b) Bi alderdien artean adostutako estatistika-eragiketak egitea 2019an, eta, ondoren, erdietsitako emaitzak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari helaraztea, ezarritako egutegiarekin bat.

c) Behar diren baliabide materialak eta humanoak izatea, izan zuzenean zein zeharka, adostutako estatistika-eragiketak egiteko.

2.— Jarduketa hauek egiteko konpromisoa hartzen du Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak:

a) Estatistikaren arloan autonomia-erkidegoak egindako eragiketak tratatzea, garbitzea, sartzea eta zabaltzea, ezarritako egutegiarekin bat etorritik.

b) Hirugarren klausulan ezarritakoarekin bat finantzatzea Estatistika Programa egiteko autonomia-erkidegoak egin behar duen lanen zatia.

3.— I. eranskinean daude jarduketaren xehetasunak eta 2019rako aurrekontua.

Hirugarrena.– Aurrekontua, finantzazioa eta ordaintzeko modua.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak finantzatuko du hitzarmen hau, Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorren, 23.02.451O.640.08 aurrekontu-aplikazioaren kargura, zeinak 2019ko ekitaldirako luzatu baitira.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren gehieneko kontribuzioa 85.008,61 eurokoa da, eta alderdiek adostutako estatistika-eragiketak egikaritzeko bideratuko dira, erabakitako urteko plangintzarekin eta estatistika-eragiketen egutegiarekin bat.

Zenbateko hori, banku-transferentziaren bidez ordainduko dio Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak Euskal Autonomia Erkidegoari –kodeak: ES81-2095-0611-0521-3100-0143–, egindako lanak egiaztatu eta Ministerioak adostasuna ziurtatu eta gero.

Autonomia-erkidegoak behar diren baliabide materialak eta humanoak ezarriko ditu adostutako estatistika-eragiketak egiteko.

Laugarrena.– Lan-programak.

Autonomia-erkidegoak egin behar dituen estatistika-eragiketak eta egiten dituen lan zehatzak –zeinak hitzarmen honen oinarria baitira– Espainiako 2017-2020 Estatistika Planean –410/2016 Errege Dekretuaren bidez onartua– Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari izendatu zaizkionak izango dira, zeinetan autonomia-erkidegoa erakunde laguntzaile gisa agertzen baita, eta, horretarako, 2019. urteko programa onartzeko abenduaren 28ko 1518/2018 Errege Dekretua aplikatuko da. Gainera, Ministerioak argitaratutako metodologiarekin bat, nekazaritzako eskualdeko kontu ekonomikoak prestatzeko behar diren eragiketak ere egingo ditu.

Estatistika-eragiketak horiek nahitaezkoak dira Europako araudiari erantzuteagatik edo Europako araudiak betetzeko beharrezko informazio-iturri izateagatik.

Europako araudian zehaztutako zabalkunde-egutegian eta aurreko apartatuan aipatutako urteko programetan argitaratutako zabalkunde-egutegian zehaztutako epeak bete ahal izateko behar besteko aurrerapenez helaraziko dira datuak.

Bosgarrena.– Jarraipen-batzordea.

Jarraipen-batzorde bat eratuko da hitzarmen honen betetze-maila ebaluatzeko; alderdi bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute. Batzorde hori urtean behin gutxienez bilduko da, eta beharrezanek hala eskatzen duten bakoitzean.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioako Analisi, Koordinazio eta Estatistikako zuzendariorde orokorrak jardungo du batzorde horren lehendakari gisa, edo hark eskuordetzen duen pertsonak, eta, idazkari gisa, berriz, autonomia-erkidegoko funtzionario batek.

Alderdien arteko adostasunez hartuko dira jarraipen-batzordearen erabakiak.

Autonomia-erkidegoan eskumena duen erakunde titularrak izendatuko ditu batzordeko autonomia-erkidegoko ordezkariak.

Jarraipen-batzordea arduratuko da hitzarmena egikaritzearen jarraipenaz, zaintzaz eta kontrolaz eta hitzarmena egikaritzean jazo litezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak ebazteaz.

Seigarrena.– Iraupena.

Hitzarmen honek eragina izango du Estatuko sektore publikoko Lankidetzako Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoa inskribatu eta 2019ko abenduaren 31 arte Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera.

Zazpigarrena.– Aldaketa eta ebazpena.

Alderdiek hala erabakiz gero, hitzarmen hau aldatu ahal izango da, alderdi bietako ezeinek proposatuta; horretarako, aldaketa-akordio egokia sinatuko dute alderdiek, zeina iraupen-aldia amaitu baino lehen sinatu beharko baita.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51.1 artikuluaekin bat etorriz, hitzarmenak azkentzen dira edo hitzartu ziren jarduketak burutzeagatik, edo hitzarmena suntsiarazteko arrazoiren bat gertatzeagatik.

Gainera, artikulua beraren 2. apartatuaren arabera, hauek dira hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea, hura luzatzeko erabakirik hartu gabe.
- b) Alderdi sinatzaile guztiek aho batez hala erabakitzea.
- c) Alderdi sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak urratzea.

Kasu horretan, errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio urraketa egin duen alderdiari beste alderdiak, epe jakin batean bete ditzan urratutzat jo diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori jakinaraziko zaie hitzarmena egikaritzearen jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoaz arduratzen denari eta gainerako alderdi sinatzaileei.

Baldin eta, eskarian adierazitako epea igarotakoan, urraketa bere horretan jarraitzen badu, hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak jakinaraziko die zuzentzeko eskatu zuen alderdiak sinatzaileei, eta, beraz, hitzarmena suntsituta geratuko da.

- d) Epaileak hitzarmena deuseztatzeko erabakia hartzea.
- e) Hitzarmenean edo gainerako legeetan aurreikusi gabeko beste edozein arrazoi.

Aurrez suntsiarazten bada hitzarmena, abian diren jarduketak egiten jarraituko da, hitzarmena suntsiaraztean alderdiek zehaztuko duten epe luzaezinean, harik eta horiek erabat amaitu arte, baina ez da jarduketak berririk hasiko.

Zortzigarrena.– Araubide juridikoa.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitakoa betetzen du hitzarmen honek.

Baldin eta hitzarmen honen interpretazioan eta egikaritzean sor litezkeen auziak jarraipen-batzordeak konpondu ezin baditu, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari jakinaraziko zaizkio, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat.

2019ko azaroaren 28a, osteguna

Eta, adostasun-proba gisa, eta hitzartzen dena behar bezala jasota gera dadin, hitzarmen hau sinatzen dute alderdiek, hiru aletan eta orri guztietan, izenburuan esandako tokian eta egunean.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako ministroa,
LUIS PLANAS PUCHADES.

Eskumenak eskuordetuta, urtarrilaren 10eko APA/21/2019 Agindua,

Idazkariordea,
MARÍA DOLORES OCAÑA MADRID.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2019ko azaroaren 28a, osteguna

HITZARMENAREN ERANSKINA

ESTADISTIKA-ERAGIKETEN, METODOLOGIA-EZAUGARRIEN ETA MINISTERIOAREN FINANTZAZIO-AURREKONTUAREN ZERRENDA OROKORRA

(Hitzarmena, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artekoa / 2019)

Zk.	Izena	Eragiketa-mota	Helburuak	Behaketa-eremua	Aldizkakot asuna	Emaizten lurraldekako desagregazioa	Egikaritu dadila eskatu dutenak	Ministerioaren finantzazio-aurrekontua
1	Laborantza-azalaren eta -errendimenduen urteko inkesta	Biztanleria eta laginketa bidezko inkesta	Laborantza ezberdinen azalera, errendimenduen ekoizpenak zehaztea (fruitu-arbolak barne)	Intentsitate handieneko laborantza-guneak	Urtekoa	Autonomia-erkidegoa eta probintzia	Ministerioa 2019ko programa EB	20.536,39
2	Abelburuei buruzko estatistikak (direktorioak eta inkestak)	Esparruak eratzeari buruzko inkesta	Abelburuak zehaztea definitutako tipologia baten arabera	Behi, ardi-ahuntz eta txerri ustiatagia	Seihilekoa k eta urtekoak	Udalerrria-ustiatagien estratua	Ministerioa 2019ko programa EB	1.475,57
3	Azienda-ekoizpenen estatistikak (direktorioak eta inkestak)	Esparruak eratzeari buruzko inkesta	Hildako abelburuak, motaren, okela-kanal ekoizpenaren eta destinoaren arabera. Bestelako azienta-ekoizpenak	Hiltegiak eta bestelako zentroak	Urtekoa (errolda) Hilekoa (lagina)	Autonomia-erkidegoa eta probintzia	Ministerioa 2019ko programa EB	302,97
4	Inkubazio-gelei buruzko hileko eta urteko inkestak	Esparruak eratzeari buruzko inkesta	Inkubazio-geletako jarduerari buruzko ezagutzea, arrautzen eta hegazti-okelaren ekoizpena zenbatesteko	Inkubazio-gelek	Hilekoa eta urtekoa	Autonomia-erkidegoa	Ministerioa 2018ko programa EB	380,25

2019ko azaroaren 28a, osteguna

Zk.	Izena	Eragiketa-mota	Helburuak	Behaketa-eremua	Aldizkakot asuna	Eraitzen lurraldekako desagregazioa	Egikaritu dadila eskatu dutenak	Ministerioaren finantzazio-aurrekontua
5	Abeltzaintzako merkataritza-mugimenduaren ebaluazioa	Sintesia prestatzea	Aziendaren probintziarteko mugimendua ezagutzera	Ustiategiak	Urtekoa	Probintziakoa	Ministerioa Nekazaritzako eskualdeko kontu ekonomikoak egitea Ministerioaren metodologiaren arabera	30,34
6	Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen prezio kointurakal	Merkatuaren estatistika-informazioa	Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen eta tipologia garrantzitsuenen batez besteko prezioak eskuratzea merkatu esanguratsuetan	Ekoi-erakunde merkaturatzaileak, nekazal-ustiategiak, ekoi-erakunde elkarteak	Egunekoa eta astekoa (nekazaritza) Asteak eta hilekoa (abeltza)	Ekoi-erakunde merkaturatzaileak eta probintziak	Ministerioa 2019ko programa EB	49,97
7	Espainiako batez besteko prezioak	Merkatuaren estatistika-informazioa	Batez besteko prezioak eskuratzea nekazaritza hainbat produktutarako	Ekoi-erakunde merkaturatzaileak, nekazal-ustiategiak, ekoi-erakunde elkarteak	Astekoa	Ekoi-erakunde merkaturatzaileak eta probintziak	Ministerioa 2019ko programa EB	2.264,08
8	Nekazaritzako prezio eta soldatei buruzko hileko eta urteko estatistikak	Laginketa bidezko inkestak	Batez besteko prezio haztatuak eskuratzea, eta nekazariek jasotako adierazleak (203 mota) eta ordaindutako adierazleak (120 mota) eta soldatek (19 mota) kalkulatzera	Ekoi-erakunde merkaturatzaileak, nekazal-ustiategiak, ekoi-erakunde elkarteak	Hilekoa eta urtekoa	Espainiakoa	Ministerioa 2019ko programa EB	7.330,37
9	Esne-bilketaren eta elaboratutako esnekien hileko/urteko inkesta	Laginketa bidezko inkestak (hilekoa) eta errolda (urtekoa)	Tratatutako esnea eta elaboratutako esnekiak eskuratzea	Esne-erakunde elkarteak	Hilekoa eta urtekoa	Espainiakoa	Ministerioa 2019ko programa EB	520,00

2019ko azaroaren 28a, osteguna

Zk.	Izena	Eragiketa-mota	Helburuak	Behaketa-eremua	Aldizkakot asuna	Emaizten lurraldekako desagregazioa	Egikaritu dadila eskatu dutenak	Ministerioaren finantzazio-aurrekontua
10	Nekazaritza-erabilerako lurren urteko batez besteko prezioak	Laginketa bidezko inkesta	Nekazaritza-erabilerako lurren batez besteko prezioak eskuratzea autonomia-erkidegoko, hainbat aprobexamendu-motatarako	Probintziak eta lurzoru-erabilera mota esanguratsuenak	Urtekoa	Autonomia-erkidegoa eta probintzia	Ministerioa 2019ko programa EB	273,73
11	Landa-errentamenduen urteko kanonak	Laginketa bidezko inkesta	Landa-errentamenduen urteko kanonak eskuratzea autonomia-erkidegoko, hainbat aprobexamendu-motatarako	Probintziak eta lurzoru-erabilera mota esanguratsuenak	Urtekoa	Autonomia-erkidegoa eta probintzia	Ministerioa 2019ko programa EB	469,62
12	Nekazaritzako eskualdeko kontu ekonomikoak	Sintesia prestatzea	Nekazaritza-jarduerako adierazle makroekonomiko nagusiak zehaztea	Eduki fisiko, ekonomiko eta soziala duten estatistikak	Urtekoa	Espainia eta autonomia-erkidegoa	Ministerioa 2019ko programa EB	790,71
13	Nekazaritza Kontabilitate Sare Espainiarra	Laginketa bidezko inkesta	Egiturazko, ekoizpeneko eta kontabilitateko aldagai nagusien batez besteko emaitzak eskuratzea	Nekazaritza-ustiategiak	Urtekoa	Autonomia-erkidegoa	Ministerioa 2019ko programa EB	48.320,94
14	Itsas-arrantzari buruzko inkesta ekonomikoa	Laginketa bidezko inkesta	Arrantza-flotaren errentagarritasuna zehaztea	Flota guztia.- Arrantzategi ontzia	Urtekoa	Arrantzategia	Ministerioa 2019ko programa EB	2.002,02
15	Nekazaritza-establezimenduei buruzko inkesta	Inkesta sakona	Akuikultura-establezimenduei buruzko informazio tekniko eta ekonomikoa eskuratzea	Guztiak	Urtekoa	Autonomia-erkidegoa	Ministerioa 2019ko programa EB	261,65
GUZTIRA (eurotan):								85.008,61

2019ko azaroaren 28a, osteguna

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa	Saileko araudia eta/edo interes orokorra
EEP:	2017-2020 Espainiako Estatistika Plana (EEP), urriaren 31ko 410/2016 Errege Dekretuaren bidez onartua (azaroaren 18ko BOE), eta EEP garatzeko 2019. urteko programa, abenduaren 28ko 1518/2018 Errege Dekretuaren bidez onartua (29ko BOE).
EB:	Europar Batasuneko Araudia (erregelamenduak, zuzentarauak, erabakiak...).